# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 2081

160/1994 DEKRETUA, apirilaren 19koa, Euskal Autonomi Elkarteko unbetsitateaz kanpoko ikstetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei dagokiona.

Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko den uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, Konstituzioak aitortzen eta babesten duen hezkuntzarako eskubideaz ikasleek baliatzea arautzean, oinarrizko eskubide eta betebeharren multzo bat ezartzen du eta horiek osatzen dute aipatutako oinarrizko eskubide haren funtsezko muina.

Beste xedapen arau-emaile batzuk, Oinarizko eskubide eta betebeharretatik sortzen diren aldeak zati batean arautzen dituzte, esaterako, Euskeraren Erabilpena arauzkotzeko den azaroaren 24ko 10/1982 Legeak eta Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legeak, gero, lege horiek, dagozkien araudi eta osagarrizko xedapenen bidez garatu ziren.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 15.1 atalak, Euskadiko Eskola-Kontseiluak informea eman ondoren, baimena ematen dio Jaurlaritzari ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzeko dekretu bidez, beti ere, ikaslegoko norbanakoen eta taldeen eskubideak errespetatuz.

Dekretu honek, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleei dagozkien eskubide eta betebeharrak era sistematuan jasotzen eta garatzen ditu eta, eskola-elkarteko kideen kontrol-mekanismoak jarriz, eginkizun horiek betetzen direla bermatzen du.

Halaber, ikaslegoaren disziplina-araubidea arautzen du dekeretu honek, arau-hausteak eta horiei dagozkien zigorrak tipifikatzeari ekinez, bai eta edozein zigortze-araubideri eskatu behar zaizkion gutxienezko bermeak betetzea ziurtatuko duen jardunbide egoki bat ezarriz.

Bai dekretu hau eta, beren arautegiaren bidez ikastetxe bakoitzak gauzatu behar duen dekretu horren garapena ere, gure gizartearen baloreek eta hezkuntza-jardun guztia gidatu behar duten printzipioek markatutako eremuaren barruan sartu, interpretatu eta aplikatu beharko dira. Ikastetxeak, elkarrekin bizi diren unitateak dira, elkarte demokratikoak eta, hezkuntza sistemak sustatu behar dituen baloreetan oinarritu behar du eskolako elkarbizitza horrek. Horrela, askatasuna, errespetua, tolerantzia, integrazioa, parte-hartzea edo kritikarako gaitasuna bezalako printzipioek izan beharko dute ikastetxeen bizitza arautuko duten elkarbizitzarako eta disziplinarako arauak eta esparru hori zuzenduko dituztenak. Bestalde, eskubideen eta bete-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

### 2081

DECRETO 160/1994, de 19 de abril, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, Reguladora del Derecho a la Educación, al regular el ejercicio por parte de los alumnos del derecho a la educación que la Constitución reconoce y ampara, establece un conjunto de derechos y deberes básicos que constituyen el núcleo esencial de aquel derecho fundamental.

Otras disposiciones normativas regulan parcialmente aspectos derivados de aquellos derechos o deberes básicos, como son la ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de Normalización del uso del Euskera, y la ley 13/1988, de 28 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi, que son, posteriormente, desarrollados mediante los pertinentes reglamentos y disposiciones complementarias.

Por otro lado, el artículo 15.1 de la ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca,autoriza al Gobierno para regular mediante Decreto, previo informe del Consejo Escolar de Euskadi, los derechos y deberes de los alumnos, teniendo en cuenta en todo caso el respeto a los derechos individuales y sociales del alumnado en el ámbito escolar.

El presente Decreto recoge y desarrolla de forma sistematizada los derechos y deberes que corresponden a los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y garantiza su ejercicio mediante el establecimiento de mecanismos de control de su observancia y cumplimiento por parte de los miembros de la comunidad educativa.

Asimismo este Decreto regula el régimen disciplinario del alumnado, procediendo a tipificar las faltas, las sanciones que a las mismas corresponden así como a establecer un adecuado procedimiento que asegure el cumplimiento de las garantías mínimas exigibles en cualquier régimen sancionador.

Tanto el Decreto como su desarrollo posterior, que corresponde a cada uno de los Centros educativos a través de su Reglamento, deben ser encuadrados, interpretados y aplicados en un contexto marcado por los valores de nuestra sociedad y por los principios que deben regir toda intervención educativa. Los Centros escolares constituyen unidades de convivencia, comunidades democráticas, y la convivencia escolar ha de basarse en los valores que el sistema educativo debe promover. Así, principios como la libertad, el respeto, la tolerancia, la integración, la participación o la capacidad crítica deben presidir las normas y el marco de convivencia y disciplina que rige la vida de los Centros. Por otra parte, sólo el Centro podrá tomar en consideración fac-

beharren jarduna zehazteko giltzarri-eragileak, ikastetxeak bakarrak hartu ahal izango ditu, hau da, ikasleen edadea edo beren gizarte- edo famili-ingurumaria.

Horrela, dekretu honen xede diren ikaslegoaren eskubide eta betebeharrak araupetzea lortzeko, demokrazi printzipioen arabera, oinarrizko helburua den elkarbizitze-harremanei laguntza ematea lor dezan, ikastetxe guztiek, beren ikasleek bizi duteneko ingurumaria, eskola-elkarteko kide desberdinen eskubide eta betebeharren izaera elkarreraginezko eta osagarrizko izaera eta edozein ikasketak duen izaera progresibo eta sistematikoa ere kontutan hartu beharko dute, eta, beraz, eskubideaz baliatzea eta eginkizunak betetzea ere.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Euskadiko Eskola-Kontseiluak informea eman ondoren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko apirilaren 19an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleei aplikatuko zaie dekretu hau.

*2. atala.*– Ikasle guztiek eskubide eta betebehar berdinak dituzte. Horietan jardutea, edadeari eta egon daudeneko irakaskuntzen ziklo edo mailari egokituko zaio.

*3. atala.*– Hezkuntzarako eskubidea arautzeko den uztailaren 3ko 8/1985 L.O.ak, hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrerako den urriaren 3ko 1/1990 L.O.ak eta euskal eskola publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legeak hezkuntza-jardunari ematen dizkioten helburuen esparruan burutuko da eskubide eta betebehar horien jarduna.

*4. atala.*– 1.– Hezkuntzako gizartearen gainerako kideen eskubideak aitortu eta errespetatzearen kaltetan izan gabe baliatuko dira beren eskubideez ikasleek.

2.– Eskola-elkarteko kide guztiek dekretu honetan jasotako ikasle-eskubide guztiak aitortu eta errespetatu egin beharko dituzte.

*5. atala.*– Hezkuntza administrazioak eta ikastetxeetako agintedun organoek, beren eskuduntza-eremuen barruan, ikasleen eskubide eta betebeharrak egoki erabili eta zehatz-mehatz gordeko direla bermatuko dute.

tores claves para la concreción del ejercicio de los derechos y deberes, factores como la edad de los alumnos y alumnas o su contexto social y familiar.

Así pues, para lograr que la regulación de los derechos y deberes del alumnado, objeto del presente Decreto, cumpla el objetivo educativo fundamental de contribuir a unas relaciones de convivencia de acuerdo a los principios democráticos, todo Centro deberá tener en cuenta el contexto en que viven sus alumnos y alumnas, el carácter interactivo y complementario de los derechos y deberes de los diferentes miembros de la comunidad escolar, así como el carácter progresivo y sistemático de todo aprendizaje y, por tanto, también del ejercicio de los derechos y del cumplimiento de los deberes.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previo informe del Consejo Escolar de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de abril de 1994.

DISPONGO:

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– El presente Decreto es de aplicación a los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.*– Todos los alumnos y alummnas tienen los mismos derechos y deberes. Su ejercicio se adaptará a la edad y al ciclo y nivel de las enseñanzas que se encuentren realizando.

*Artículo 3.*– El ejercicio de estos derechos y deberes se llevará a cabo en el marco de los fines que a la actividad educativa atribuye la L.O. 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, la L.O. 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, y la ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.

*Artículo 4.*– 1.– Los alumnos y alumnas ejercitarán sus derechos sin perjuicio del reconocimiento y respeto de los derechos del resto de los miembros de la Comunidad Educativa.

2.– Todos los miembros de la comunidad escolar tienen el deber de reconocer y respetar los derechos de los alumnos y alumnas recogidos en este Decreto.

*Artículo 5.*– La Administración educativa y los órganos de gobierno de los centros docentes garantizarán en sus respectivos ámbitos de competencia el correcto ejercicio y la estricta observancia de los derechos y deberes de los alumnos y alumnas en los términos previstos en el presente Decreto.

II. ATALBURUA

IKASLEEN ESKUBIDEAK

LEHENENGO SEKZIOA

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALERAKO ESKUBIDEA

*6. atala.*– 1.– Beren nortasunaren garapen osoa emango dien heziketa bat hartzeko eskubidea dute ikasleek. Horretarako bideratuko dira beti ikastetxeen curriculum-diseinuak, hezkuntza- eta curriculum-proiektuak eta halaber, irakaskuntzako programazio orokorra ere.

2.– Aurreko idazatiak aipatzen duen heziketak ondorengo hauek hartzen ditu:

a) Eskubide eta askatasunen errespetuan hezitzea eta elkarbizitzako demokrazia-printzipioen barrauan, tolerantzia eta askatasuna erabiliz.

b) Lanerako ohitura intelektual eta teknikoak hartzea, halaber zientzia, teknika, gizadi, historia eta estetika mailako ezagutzak ere.

c) Nortasuna askatasunean garatzea eta demokraziazko elkarbizitza ahalbidetuko duten balioetan oinarrituz osabetezko heziketa ematea ikasleei.

d) Irakasleek, beren historia eta kultura ezagutuz, Euskal Herriko kide diren aldetik, beren geografi, gizarte eta ekonomi eta kultur ingurumarian sustraitzea sustatuz beren kultur nortasuna aurkitzea.

e) Ikasle guztiek, baldintza berdinetan, derrigorrezko irakaskuntza aldia bukatzean, bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa izatea, horrela, euskeraren erabilpena indartuz eta normalkuntzari laguntza emanez.

f) Afektibotasunaren garapen armonikoa, autonomia pertsonalarena, autoestimarena eta besteekin harremanetan izateko gaitasunarena.

g) Lanbidezko ekintzak, intelektualak eta ludikoak gauzatzeko gaitasuna.

h) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoen garapena ziurtatuko duen hezkuntza.

i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetuko duen parte hartzea.

j) Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko elkarlan eta solidaritaterako heziketa.

3.– Bere ahalmenak osoro garatu ahal izateko, ikaslegoaren adinari eta heldutasunari egokituko zaio eskola jardunaldiaren barruan lana antolatzea. Horretarako, eskola-jardunaldia antolatzea, besteak beste, ikaslegoaren proposamenak eta interesak kontuan harturik egingo da. Gai horri dagokionez, ikasleek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte beren ordezkarien bitartez.

CAPITULO II

DERECHOS DE LOS ALUMNOS

SECCION PRIMERA

DERECHO A UNA EDUCACION INTEGRAL DE CALIDAD

*Artículo 6.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a recibir una formación que les permita conseguir el pleno desarrollo de su personalidad. A ese fin se dirigirán siempre los diseños curriculares y los proyectos educativos y curriculares de los centros docentes, así como la programación general de la enseñanza.

2.– La formación a la que se refiere el apartado anterior comprende:

a) La formación en el respeto de los derechos y libertades y en el ejercicio de la tolerancia y la libertad dentro de los principios democráticos de convivencia.

b) La adquisición de hábitos intelectuales y técnicas de trabajo, así como de conocimientos científicos, técnicos, humanísticos, históricos y estéticos.

c) El desarrollo en libertad de la personalidad y la formación integral de los alumnos y alumnas, asentados en los valores que hacen posible la convivencia democrática.

d) El descubrimiento por parte de los alumnos y alumnas de su identidad cultural como miembros del pueblo vasco mediante el conocimiento de su historia y cultura propias, fomentando el enraizamiento de los alumnos y alumnas en su entorno geográfico, socio-económico y cultural.

e) El conocimiento práctico de ambas lenguas oficiales al acabar el período de enseñanza obligatoria de todos los alumnos y alumnas, en igualdad de condiciones, potenciando el uso y contribuyendo a la normalización del euskera.

f) El desarrollo armónico de la afectividad, de la autonomía personal, de la autoestima y de la capacidad de relación con los demás.

g) La capacitación para el ejercicio de actividades profesionales, intelectuales y lúdicas.

h) La educación que asegure la protección de la salud y el desarrollo de las capacidades físicas.

i) La participación en la mejora de la calidad de la enseñanza.

j) La formación para la paz, la libertad y la promoción de las ideas de cooperación y de solidaridad entre los pueblos.

3.– La organización del trabajo dentro de la jornada escolar se adaptará a la edad y a la madurez del alumnado a fin de posibilitar el pleno desarrollo de sus potencialidades. A estos efectos, la organización de la jornada escolar se hará tomando en consideración entre otros aspectos, las propuestas e intereses del alumnado. En relación con esta cuestión, los alumnos y alumnas podrán presentar propuestas a través de sus representantes.

*7. atala.*– 1.– Ebaluaziorako zein erizpide egongo den eta ikasturte edo eskola-ziklo bakoitzean gainditu beharreko gutxienezko helburuak ezagutzeko eskubidea dute ikasleek. Irizpide horiek, ikastetxeko curriculum-proiektuaren barruan egongo dira, zentru bakoitzean ikasturtea hasteko unean ezagutarazi beharko dira eta indarrean dauden ikasketa-planekin eta ikastetxeari aitortzen zaion autonomia gauzatzerakoan hartzen dituen aukerekin bateragarriak izan beharko dute.

2.– Jarduera akademikoen eta ebaluazio partzialen edo azkenekoen kalifikazioei buruzko argibideak eskatzeko eskubidea dute ikasleek edo beren guraso edo tutoreek.

3.– Ikastetxeek beren antolamendu- eta funtzionamendu-araudietan edo barne araubidean ezarritako jardupidearen arabera, ikasleek edo beren legezko ordezkariek erreklamazioak egiteko eskubidea dute aipatutako abaluazio horietako kalifikazioen aurka.

*8. atala.*– 1.– Beren kontzientzi-askatasuna eta ideologi-, erligio-, etika- eta moral- uste sendoak errespeta dakizkiela eskatzeko eskubidea dute ikasleek halaber, horiekiko intemitatea ere.

2.– Honako hauek izango dira bermatuko dutenak eskubide horretaz baliatzea:

a) Lege-ordenamenduan agindutako mugen barruan gauzatuko den adierazpen-askatasunaren kaltetan izan gabe, ikaslegoaren propaganda- edo ideologi-manipulazioa saihestuko duen irizpide objektiboetan oinarritutako irakaskuntza ematea.

b) Ikasleen gaitasun eta jarrera kritikoa sustatzea.

c) Legez agindutako baldintzen barruan, ikasleek, edo beren guraso edo tutoreek beren semeentzat, nahi dezaten erligio-irakaskuntza aukeratzea.

d) Matrikulazioa egin aurretik, ikastetxearen hezkuntza-proiektuari buruzko edo, hala bada, beren titularrek hori jarri duten kasuan, ikastetxearen idearioari buruzko informazioa.

*9. atala.*– 1.– Beren osotasun fisiko, psikiko eta morala eta beren duintasun pertsonala errespetatuak izateko eskubidea dute ikasle guztiek eta inola ere ezingo zaie tratu laidogarri edo degradatzailerik eman ez eta tratu txar fisiko edo morala duten zigorrik eman ere.

2.– Beren jardun akademikoa segurtasun eta higiene baldintza egokietan garatuko denaren eskubidea dute ikasle guztiek.

3.– Ordenamendu juridikoaren esanera, Hezkuntza Administrazioak eta bere Zerbitzuek dituzten informaziorako beharrei erantzutearen kaltetan izan gabe eta ikaslearekiko tratu txarra edo adin txikikoen babeserako legeek ezartzen dituzten egin beharretako beste edozein ez-betetzeak bere baitan daukaten inguruabar guztiak eskuduntza duen agintariari jakinarazi beharraren kaltetan izan gabe, ikasleen inguruabar pertsonal eta familiarrei buruz izan dezaten infomazio guztia barruan gordetzeko obligazioa dute ikastetxeek.

*Artículo 7.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a conocer los criterios de evaluación y los objetivos mínimos que deben ser superados en cada curso o ciclo escolar. Dichos criterios, que formarán parte del proyecto curricular del Centro, deberán hacerse públicos por los distintos centros en el momento de la iniciación del curso y ser congruentes con los planes de estudios vigentes y las opciones que se adopten en el ejercicio de la autonomía reconocida al Centro.

2.– Los alumnos y alumnas, o sus padres o tutores, tienen derecho a solicitar aclaraciones a sus profesores respecto a las calificaciones de actividades académicas o de evaluaciones parciales o finales.

3.– Los alumnos o sus representantes legales tienen derecho a reclamar contra las calificaciones de las citadas evaluaciones, de acuerdo con el procedimiento establecido por los centros en sus reglamentos de organización y funcionamiento o de régimen interior.

*Artículo 8.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a que se respete su libertad de conciencia y sus convicciones ideológicas, religiosas, éticas y morales, así como su intimidad en relación con aquéllas.

2.– El ejercicio de este derecho se garantizará mediante:

a) La impartición de una enseñanza basada en criterios objetivos que evite toda manipulación propagandística o ideológica del alumnado, sin perjuicio de la libertad de expresión, que se ejercerá en los términos previstos en el ordenamiento jurídico.

b) El fomento de la capacidad y actitud crítica de los alumnos y alumnas.

c) La elección, por parte de los alumnos y alumnas o de sus padres o tutores de la enseñanza religiosa que deseen, para sí o para sus hijos, en las condiciones legalmente previstas.

d) La información, previa a la matriculación, sobre el proyecto educativo del Centro o, en su caso, sobre el ideario del mismo, en el supuesto de que haya sido establecido por sus titulares.

*Artículo 9.*– 1.– Todos los alumnos tienen derecho a que se respete su integridad física, psíquica y moral y su dignidad personal, no pudiendo ser objeto, en ningún caso, de tratos vejatorios o degradantes, ni de sanciones que impliquen maltrato físico o moral.

2.– Todos los alumnos tienen asimismo derecho a que su actividad académica se desarrolle en las debidas condiciones de seguridad e higiene.

3.– Los centros docentes estarán obligados a guardar reserva sobre toda aquella información de que dispongan acerca de las circunstancias personales y familiares de los alumnos y alumnas, sin perjuicio de satisfacer las necesidades de información de la Administración Educativa y sus Servicios, de conformidad con el ordenamiento jurídico, y sin perjuicio de la obligación de comunicar a la autoridad competente todas aquellas circunstancias que puedan implicar malos tratos para el alumno o alumna o cualquier otro incumplimiento de los deberes establecidos por las leyes de protección del menor.

*10. atala.*– 1.– Beren gaitasun, ezagutza eta ahalmenen arabera, beren erabaki-askatasuna ziurtatuko duen eskola-, bokazio- eta lanbide-orientabidea hartzeko eskubidea dute ikasleek. Horretarako, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 4 f) atalak ezartzen duen esparruan, bere inguruko enpresa publiko eta pribatuekin harremanetan jarri ahal izango dute ikastetxeek, ikasleei lan-mundua ezagutzea eta bertara heldu ahal izateko hartu beharko duten lanbide-prestakuntza errazteko, enpresa jakin batean, publikoan zein pribatuan, egindako lan-praktikak, ikasleek hartzen dituzten ikasketekin bat etor daitezen bermatuz.

2.– Aurreko idazati horretan aurrikusten diren ondorioetarako, dagozkien bixita eta heziketa-jardunak programatuko dituzte ikastetxeek.

BIGARREN SEKZIOA

ESKOLA BERDINTZAILE BATERAKO ESKUBIDEA

*11. atala.*– 1.– Hezkuntzako maila desberdinetara heltzeko aukera beretarako eskubidea dute ikasle guztiek. Derrigorrezkoak ez diren mailetan, aprobetxamendu nahikoatik edo ikasketarako bere gaitasunetatik sortzen diren mugak bakarrik izango dituzte.

2.– Aukera-berdintasunerako honako hauek erabiliko dira:

a) Jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ekonomia-maila, gizarte-maila, politika-, moral- edo erligio-mailako uste sendoak direla bide bereizkeriarik ez egotea, ez eta urritasun fisiko edo psikikoengatik ere edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialagatik ere.

b) Aukeren benetakoa eta efektiboa den berdintasuna bermatuko duten neurri positiboak jartzea.

c) Integraziorako hezkuntza-politikak gauzatzea eta hezkuntza-behar berezientzako erantzunak.

*12. atala.*– 1.– Aukeren benetako berdintasuna bermatuko duten baldintza egokiak sortzeko, familia, ekonomia, gizarte eta kultura mailako urritasunak konpentsatzeko beharrezko izan daitezen laguntzak hartzeko eskubidea dute ikasleek.

2.– Eskubide hori bermatu egingo du Hezkuntza-Administrazioak, ikasleen beharrei egokitutako politika bat ezarriz eta integraziorako eta laguntzarako hezkuntza-behar berezietarako hezkuntza-politikak ezarriz.

3.– Gizarte, kultura eta ekonomikoki bereziki behartsua den ikaslegoaren beharrei erantzuteko, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 10. eta 68. ataletan finkatutako mugen barruan, beste zerbitzu publiko eta komunitarioekin harremanak eduki ahal izango dituzte ikastetxeek.

*13. atala.*– 1.– Familiako zorigaitzaren edo istripuaren kasuetan, Gizarte Segurantzaren gaietan legedian agindutako mugen barruan, babes sozialerako eskubidea daukate ikasleek.

*Artículo 10.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a recibir orientación escolar, vocacional y profesional que asegure su libertad de decisión de acuerdo con sus aptitudes, conocimientos y capacidades. Para ello, y en el marco de lo establecido por el artículo 4 f) de la ley de la Escuela Pública Vasca, los centros docentes podrán relacionarse con las empresas públicas y privadas del entorno con el fin de facilitar a los alumnos y alumnas el conocimiento del mundo del trabajo y la preparación profesional que tendrán que adquirir para acceder al mismo, garantizando que las prácticas laborales realizadas en una determinada empresa, ya sea pública o privada, estén en concordancia con los estudios recibidos por el alumno o alumna.

2.– A los efectos previstos en el apartado anterior, los centros docentes programarán las correspondientes visitas y actividades formativas.

SECCION SEGUNDA

DERECHO A UNA ESCUELA COMPENSADORA

*Artículo 11.*– 1.– Todos los alumnos y alumnas tienen derecho a las mismas oportunidades de acceso a los distintos niveles de enseñanza. En los niveles no obligatorios no habrá más limitaciones que las derivadas de su aprovechamiento suficiente o de sus aptitudes para el estudio.

2.– La igualdad de oportunidades se promoverá mediante:

a) La no discriminación por razón de nacimiento, raza, lengua, sexo, capacidad económica, nivel social, convicciones políticas, morales o religiosas, así como por deficiencias físicas o psíquicas, o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

b) El establecimiento de medidas positivas que garanticen la igualdad real y efectiva de oportunidades.

c) La realización de políticas educativas de integración y respuesta a las necesidades educativas especiales.

*Artículo 12.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a recibir las ayudas precisas para compensar posibles carencias de tipo familiar, económico y sociocultural, con la finalidad de crear las condiciones adecuadas que garanticen una real igualdad de oportunidades.

2.– La Administración Educativa garantizará este derecho mediante el establecimiento de una política de ayudas adecuada a las necesidades de los alumnos y alumnas y de políticas educativas de integración y de atención a necesidades educativas especiales.

3.– Los Centros escolares, en los términos establecidos por los art. 10 y 68 de la ley de la Escuela Pública Vasca, podrán mantener relaciones con otros servicios públicos y comunitarios para atender las necesidades del alumnado especialmente desfavorecido sociocultural y económicamente.

*Artículo 13.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a protección social en supuestos de infortunio familiar o de accidente, en los términos previstos en la legislación en materia de Seguridad Social.

2.– Familia-ezbeharra, istripua edo eritasun luze bat jasaten duten ikasleek, egiten ari diren ikasketetan jarraitzea edo bukatzea ezinezko gerta ez dakien, agintari publikoek ezarriko dituzte dagozkien baldintza akademiko edo ekonomikoak. Derrigorrezko ikasketen mailak egiten ari diren ikasleek, kasu horietan, beren eskola-emankortasuna ziurtatzeko beharrezko izan dadin laguntza hartzeko eskubidea dute.

3.– Agintari publikoek, gizarte babesaren beharra duten ikasleak jasotzen dituzten familiei laguntzak ematea sustatu egingo dute .

4.– Mediku eta ospitale sorospena familia barruan beteta ez daukaten ikasleek, indarrean dagoen legegintzak agintzen dituen moduetan, osasunbide-onura izango dute.

*14. atala.* 1.– Istripu edo gaixotasun luze bat gertatzen bazaie, beren ikastetxearen bitartez edo urrutiko hezkuntzako ikastetxe ofizialen bitartez, istripu edo gaixotasun hori oztopo gerta ez dakion beren eskolaerrendimenduari, beharrezko laguntzarako eskubidea izango dute derrigorrezko ikasketak egiten ari diren ikasleek.

2.– Ikasketen jarraipena soldadutza edo ordezkatzeko zerbitzu sozialarekin batera egin ahal izateko, dagozkion neurriak eratuko ditu Hezkuntza Administrazioak, zerbitzu horiek uzten duten neurrian. Klasetara joatea ezinezkoa gertatzen bada, matrikula Urrutiko Hezkuntzako ikastetxe batera aldatzeko posibilitatera bideratuko da ikaslea.

HIRUGARREN SEKZIOA

PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

*15. atala.*– 1.– Ikasleek, Hezkuntzarako eskubidea Arautzeko den uztailaren 3ko 8/1985 L.O.an, lege hori erabiltzeko araugintzan eta otsailaren 18ko Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legean agindutako moduetan, ikastetxeen funtzionamenduan eta bizitzan, horien eskola-jardunean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea dute.

2.– Ikasleek, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legean, uztailaren 6ko 201/1993 Dekretuan eta ikastetxe bakoitzeko antolakuntza eta funtzionamendurako araudian ezarritakoarekin bat eginez, ikastetxe publikoetako organo gorenetan parte hartzeko eskubidea dute.

Halaber, Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko den uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan eta ikastetxe bakoitzaren barne erregimenaren araudian agindutakoaren arabera, itunpeko ikastetxeetako ikasleek eskola kontseiluetan parte hartzeko eskubidea izango dute.

3.– Ikastetxe (publiko edo itunpeko pribatua) bakoitzak, bere antolamendurako eta jardunerako araudian edo barne araubidean ezar dezan partizipazio-organo espezifikoko kideak, bigarren mailako edo baliokideko irakaskuntza egiten ari direneko ikastetxean matrikulatutako ikasle guztien artean, zuzeneko eta

2.– Los poderes públicos establecerán las condiciones académicas y económicas oportunas para que los alumnos y alumnas que sufran una adversidad familiar, un accidente o una enfermedad prolongada no se vean imposibilitados para continuar y finalizar los estudios que se encuentren cursando. Los alumnos y alumnas que cursen niveles obligatorios tienen derecho a recibir en estos casos la ayuda necesaria para asegurar su rendimiento escolar.

3.– Los poderes públicos promoverán la concesión de ayudas a familias que acojan alumnos y alumnas necesitados de protección social.

4.– Los alumnos y alumnas que no tengan cubierta la asistencia médica y hospitalaria en el seno familiar, gozarán de cobertura sanitaria en los términos previstos en la legislación vigente.

*Artículo 14.*– 1.– En caso de accidente o de enfermedad prolongada, los alumnos y alumnas que cursen enseñanzas obligatorias tendrán derecho a la ayuda precisa, ya sea a través del propio Centro o de los centros oficiales de enseñanza a distancia, para que el accidente o enfermedad no suponga detrimento de su rendimiento escolar.

2.– La Administración Educativa articulará las medidas oportunas para hacer compatible la continuación de los estudios con el servicio militar o la prestación social sustitutoria en la medida en que éstos lo permitan. En el supuesto en que la asistencia a clase no fuera factible se orientará al alumno sobre la posibilidad de trasladar la matrícula a un Centro de Educación a Distancia.

SECCION TERCERA

DERECHO A LA PARTICIPACION

*Artículo 15.*– 1.– Los alumnos y alumnas tienen derecho a participar en el funcionamiento y en la vida de los Centros, en la actividad escolar y en la gestión de los mismos, en los términos previstos en la L.O. 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, su normativa de aplicación y en la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca.

2.– Los alumnos y alumnas tendrán derecho a participar en los Organos máximos de representación de los centros públicos, de acuerdo con lo establecido en la Ley de la Escuela Pública Vasca, el Decreto 201/1993, de 6 de julio, y en el reglamento de organización y funcionamiento de cada centro.

Así mismo los alumnos y alumnas tendrán derecho a participar en los Consejos Escolares de los centros privados concertados de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, y en el Reglamento de Régimen Interior de cada centro.

3.– Los miembros del órgano específico de participación de los alumnos que cada centro educativo, público o privado concertado, establezca, respectivamente, en su reglamento de organización y funcionamiento o de régimen interior, deberán ser elegidos mediante sufragio directo y secreto entre todos los alumnos y alumnas

ixilpeko sufragioan hautetsiak izan beharko dute. Lehen mailako ikaslegoa duten ikastetxeetan, antolamendurako eta jardunerako arautegiak ezarri ahal izango ditu ikasleen adinerako egokientzat jo ditzan parte hartzeko mekanismoak.

4.– Ikastetxe (publiko edo itunpeko pribatua) bakoitzak, bere antolamendurako eta jardunerako araudian edo barne araubidean ezar dezan partizipazio-organo espezifikoaren osaeran, beti ere, ikastetxean egon daitekeen aniztasuna ete bere-berea duen operatibitatea errespetatu egin beharko dira.

5.– Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 39. atalean agindutakoarekin bat eginik, ikastetxe bakoitzeko antolamendurako eta jardunerako arautegiak ikasleek parte hartzeko organo espezifikoari jartzen dizkion egitekoen artean, ondorengo hauek sar daitezke:

a) Goreneko organoan egongo diren ikasleen ordezkariei aholkularitza laguntza ematea, odezkatzen dituzten ikasturte, maila, espezialitate edo lanbide-familia bakoitzaren problematika hel araziko zaizkiela.

b) Bere iniziatibaz edo aipatutako taldeko organoak eskatuta, ordezkatze-organo gorenerako proposamenak prestatzea.

c) Bere-ordezkatze-eremuetan tratatuak izan daitezen, hedakuntza emateko, ikastetxeko organo gorenaren bileretako gai zerrendari buruz informatuak izatea, halaber, hartu diren erabakiei buruz ere.

d) Ikastetxeko ikasle guztiei beren jardunei buruzko informazioa ematea.

e) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruz informatuak izatea eta horien jarraipenean parte hartzea.

*16. atala.*– Ikastetxearenak diren arazoei buruz eta, oro har, hezkuntza sistemari dagozkienei buruz, parte hartzeko beren organo espezifikoko kideengandik eta ordezkatzeko organo goreneko edo Eskola Kontseiluko beren ordezkariengandik informazioa jasotzeko eskubidea dute ikastetxeetako ikasleek.

*17. atala.*– Elkarteak, federazioak eta konfederazioak sortuz, elkartzeko eskubidea dute ikasleek eta elkarte horiek Euskal Eskola Publikoaren Legeko 44. atalak aipatzen dituen laguntza- neurriak jaso ahal izango dituzte eta, halaber, kooperatiben gaietan legeetan adierazten diren moduetan, hezkuntza-kooperatibak eratzeko eskubidea ere badute.

*18. atala.*– 1.– Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko den uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 8. atalean adierazitako moduan eta praktika horiek izan dezaketen hezkuntza balioa kontutan izanik, eskolako edo eskolaz kanpoko jardunetarako bildu ahal izango dira ikasleek ikastetxeetan, halaber, hezkuntza edo heziketa helburu bat eman dakiekeen beste batzuetarako ere.

2.– Bileretako eskubideaz baliatzeko, ikastetxeen

matriculados en el centro que cursen Enseñanza Secundaria o equivalente. En los centros con alumnado de Primaria el Reglamento de Organización y Funcionamiento podrá establecer los mecanismos de participación que considere más adecuados a la edad de los alumnos y alumnas.

4.– En la composición del órgano específico de participación de los alumnos que cada centro educativo, público o privado concertado, establezca, respectivamente, en su reglamento de organización y funcionamiento o de régimen interior, deberá en todo caso salvaguardarse la pluralidad que pudiere existir en el entro y su propia operatividad.

5.– De conformidad con lo establecido en el art. 39 de la Ley de la Escuela Pública Vasca, entre las funciones que el Reglamento de Organización y Funcionamiento de cada Centro atribuya al órgano específico de participación de los alumnos podrán incluirse las siguientes:

a) El asesoramiento y apoyo a los representantes de los alumnos y alumnas del Organo máximo de representación, a los cuales harán llegar la problemática específica de cada uno de los cursos, niveles, especialidades o familias profesionales que representen.

b) Elaborar propuestas para el Organo máximo de representación, bien a iniciativa propia, bien a requerimiento del citado órgano colegiado.

c) Ser informados respecto al orden del día de las reuniones del Organo máximo de representación del centro con la suficiente antelación, así como de los acuerdos adoptados con el fin de darles difusión para ser tratados en los diferentes ámbitos de representación.

d) Informar de sus actividades a todos los alumnos y alumnas del centro.

e) Ser informados sobre los convenios de prácticas en empresas y participar en su seguimiento.

*Artículo 16.*– Los alumnos y alumnas de los centros docentes tienen derecho a ser informados por los miembros de su órgano específico de participación y por sus representantes en el Organo máximo de representación o Consejo Escolar, tanto sobre las cuestiones propias de su centro, como sobre aquellas que afecten al sistema educativo en general.

*Artículo 17.*– Los alumnos y alumnas tienen derecho a asociarse, creando asociaciones, federaciones y confederaciones, las cuales podrán recibir las medidas de apoyo a que hace referencia el artículo 44 de la Ley de la Escuela Pública Vasca. Igualmente, tienen derecho a constituir cooperativas educacionales en los términos previstos en la legislación en materia de cooperativas.

*Artículo 18.*– 1.– En los términos previstos en el artículo 8 de la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación, y teniendo en cuenta el valor educativo que puede entrañar su práctica, los alumnos y alumnas podrán reunirse en los Centros docentes para actividades de carácter escolar o extraescolar, así como para aquellas otras a las que pueda atribuirse una finalidad educativa o formativa.

2.– Para el ejercicio del derecho de reunión, los

antolamendu eta funtzionamendurako edo barne araubiderako araudiek arautuko dituzte: era, ordutegia (irakastordu eta irakatsi gabeko orduen posibilitateari begiratuz), bilerak egin daitezeneko gune eta tokiak (irakaskuntza/ikaskuntza jardun normalean izan dezaketen eragina kontuan hartuz) institutzioak merezi duten errespetua eta eskola-elkarteko kide guztiek ere bai.

3.– Ikastetxeek, antolamendurako eta funtzionamendurako beren arautegietan finkatutakoaren arabera, ikasleen elkarteenak diren jardunetarako lokal egokiak eskainiko dituzte azpiegiturak ezartzen dituen mugen barruan eta jardun akademikoaren nahasketarik ez dagoen bitartean.

Ikastetxeko Zuzendaritzak, ahal daitekeenaren neurrian, beharren egokiketa bermatuko du eta eskainitako lokalen erabilpen zuzena, iraunkorki elkarteen erabilpenerako direnena eta kasuan kasuko erabiltzen direnena ere.

*19. atala.-1.–* Hezkuntza-Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren 1.3 atalean adierazitako moduetan, Espainiako Konstituzioaren 20.1.a) atalaren esanera eta elkarbizitzarako demokrazi printzipioen barruan, adierazpen askatasunerako eskubidea dute ikasleek eta beti ere, horretaz baliatzeak, gertakizun akademiko, kultural edo sozialen aurrean ezadostasunaren adierazpena hartzen du bere baitaneroO.

2.– Idatzizko adierazpen-askatasunaz baliatu ahal izateko, antolamendurako eta funtzinamendurako arautegiek edo barne araubidekoak arautuko dute eskubide horretaz baliatu ahal direneko era, guneak eta tokiak, beti ere, kontutan hartuko dela institutzioek eta eskolaelkarteko edozein kidek merezi duten errespetua.

3.– Bigarren mailako irakaskuntzaren alorrean, klasera ez joateko proposamen batez adierazten bada ezadostasuna, ondorengo baldintza hauek bete beharko dira:

a) Beti ere, ikasleen parte hartze espezifikoa artikulatzen duen organoak egin beharko du klasera ez joateko proposamena, bere iniziatibaz edo ikastetxean matrikulatutako ikasleen %5ek gutxienez edo legez eratutako ikasleen antolakuntzen, elkarteen, federakundeen edo konfederakundeen ordezkariek eskatuta.

b) Klasera ez joateko proposamena, behar bezala arrazoinatua, idatziz egingo da, deia egiten dutenek aurrikusitako eguna baino bi astegun lehenago gutxienez, nork konbokatzen duen, eguna, ordua eta programatutako ekintzak adieraziz. Salbuespenez, aste egun bat lehenago egin ahal izango da eta proposatzaileak behar bezala justifikatu beharko ditu presaren arrazoinak.

c) Ikasleen parte hartze espezifikoa egituratzen duen organoak, Zuzendaritzari eta ikastetxeko ikasleei berehala emango die proposamenaren berri.

Reglamentos de Organización y Funcionamiento o de Régimen Interior de los centros, regularán la forma, horario (contemplando la posibilidad de horas lectivas y no lectivas), espacios y lugares en los que éste se pueda desarrollar, teniendo en cuenta para ello el grado de incidencia que puedan tener en el normal desarrollo de las actividades de enseñanza-aprendizaje, el respeto que merecen las instituciones, así como todo miembro de la comunidad educativa.

3.– Los centros, de acuerdo con lo establecido en sus Reglamentos de Organización y Funcionamiento o de Régimen Interior, facilitarán los locales adecuados para las actividades propias de las asociaciones de alumnos, hasta los límites impuestos por la infraestructura y siempre que ello no suponga alteración de la actividad académica.

La Dirección del centro deberá garantizar, en la medida de lo osible, la adecuación a las necesidades y correcta utilización de los locales facilitados, tanto de los que se destinen a uso permanente de las asociaciones como de aquéllos otros que puedan utilizarse de un modo puntual.

*Artículo 19.–* 1.– En los términos previstos en el artículo 1.3 de la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, de acuerdo con el artículo 20.1.a) de la Constitución Española, y dentro de los principios democráticos de convivencia, los alumnos tienen derecho a la libertad de expresión, cuyo ejercicio comprende, en todo caso, la expresión de la discrepancia ante acontecimientos académicos, culturales o sociales.

2.– Para el ejercicio del derecho de expresión escrita, los Reglamentos de Organización y Funcionamiento o de Régimen Interior de los centros regularán la forma, espacios y lugares, en los que se pueda desarrollar este derecho, debiéndose contemplar, en cualquier caso, el respeto que merecen las instituciones, así como todo miembro de la comunidad educativa.

3.– En el ámbito de la Enseñanza Secundaria, en caso de que la discrepancia se manifiestase con una propuesta de inasistencia a clase, deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) La propuesta de inasistencia a clase deberá ser realizada en todo caso por el órgano que articule la participación específica de los alumnos, bien por propia iniciativa, o bien a instancia de al menos un 5% de los alumnos y alumnas matriculados en el centro, o de los representantes de las Organizaciones, Asociaciones, Federaciones o Confederaciones de Alumnos legalmente constituídas.

b) La propuesta de inasistencia a clase, debidamente razonada, se realizará por escrito con una antelación mínima de dos días hábiles sobre la fecha prevista por el/los convocante/s, indicando quién convoca, fecha, hora de celebración y actividades programadas. Excepcionalmente podrá realizarse con una antelación de un día hábil, debiéndose justificar por el proponente los motivos de la urgencia.

c) El órgano que articule la participación específica de los alumnos en el centro dará inmediato traslado de la propuesta tanto a la Dirección como a los alumnos y alumnas del centro.

d) Beren delegatu eta ordezkariek aurretik informatu ondoren klasera ez joateko proposamenaren edukieraz, ixilpeko botazioan eta erabateko gehiengoz ikasleek onartze edo ezestea.

e) Egindako botuketen aktak jaso egingo dira eta ikasleen parte hartzea egituratzen duen organoko kide batek izenpetuko ditu eta akta horietan hauek adieraziko dira:

– Bilera non egin den.

– Zein ordutan hasi den.

– Ikasleen kopurua, bileran egon direnena, baiezko botoak, ezezkoak, abstenzioak.

– Botazioaren emaitza, klasera ez joateko proposamena onartzen den edo ezesten den adieraziz.

– Zein ordutan bukatu den.

f) Ikasleen parte-hartze espezifikoa egituratzen duen organoaren lehendakariak, akta horiek berehala bidaliko ditu ikastetxeko Zuzendaritzara, ahal bada, hogeita lau ordu aurretik eta presatasun kasuan, hamabira murriztu ahal izango da.

g) Ikastetxeko Zuzendaritzak, jardunbide guztiaren berri emango dio ordezkatzeko organo gorenari edo ikastetxeko Eskola Kontseiluari eta, ondorengo idazati hauetan adierazitako ondorioetarako, organo hori izango da jardunbide hori beteko denaren bermatzaile.

4.– Klasera ez joateak, aurreko idazatian ezarritako eginkizunak betetzen direnean, disziplina-ondorioetarako ez dira kontatuko baina, ikasleak adin txikikoak direnean, beren guraso edo legezko ordezkariei jakinaraziko zaie antolamendu eta funtzinamendu araudietan edo ikastetxeen barne araupidean jarritako bideetatik.

5.– Nola nahi ere, klasera ez joateko deiari erantzun nahi ez diotenei, dagokion irakaslegoak behar bezala zainduta, ikasgaietakoak diren lanak eginez ikasgelan egoteko eskubidea bermatuko die ikastetxeak.

6.– 3. idazatiak ikasleei aitortzen dien eskubideaz ikasle horiek baliatzeak, klasera ez joatearen eragina jasan duen programaren zatiaren azalpena errepikatu beharrik ez die ekarriko irakasleei.

## III. ATALBURUA

## IKASLEEN BETEBEHARRAK

*20. atala.*– Eskola-elkarteko gainerako kideek eskubide eta askatasunez baliatu ahal izatea errespetatu beharra dute ikasleek. Betebehar hori ondorengo eginkizunetan zehazten da:

a) Eskola-elkarteko kide guztien kontzientzi-libertatea eta ideologi, erligio, moral eta etika mailako uste sendoak errespetatzea, halaber duintasuna, integritatea eta intimitatea ere.

b) Jaiotza, arraza, sexua, ideologia, hizkuntza, kultura, erligioa edo eritzia edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela bide, eskola-elkarteko kiderik ez bereiztea.

d) Aprobación o rechazo por los alumnos y alumnas, en votación secreta y por mayoría absoluta, previamente informados a través de sus delegados o representantes, del contenido de la propuesta de inasistencia a clase.

e) De las votaciones efectuadas se levantarán actas, que serán suscritas por un miembro del órgano que articule la participación específica de los alumnos, en las que se expresará lo siguiente:

– Lugar de la reunión.

– Hora en que comienza

– Número de alumnos y alumnas, de asistentes, votos afirmativos, negativos y abstenciones.

– Resultado de la votación, con expresión de si se aprueba o se rechaza la propuesta de inasistencia a clase.

– Hora en que finaliza.

f) El presidente del órgano que articule la participación específica de los alumnos dará inmediato traslado de dichas actas a la Dirección del centro, a ser posible, con una antelación de veinticuatro horas, que se reducirán a doce en el caso de urgencia.

g) La Dirección del centro pondrá todo este procedimiento en conocimiento del Organo máximo de representación o del Consejo Escolar del centro, que actuará como garante de su cumplimiento, a los efectos previstos en los siguientes apartados.

4.– Las faltas de asistencia a clase, cuando se cumplan los requisitos establecidos en el apartado anterior, no serán computadas a efectos disciplinarios, pero se comunicarán a los padres o representantes legales de los alumnos o alumnas cuando sean menores de edad, por los cauces establecidos en los Reglamentos de Organización y Funcionamiento o de Régimen Interior de los centros.

5.– En cualquier caso, el centro deberá garantizar el derecho de quienes no deseen secundar la inasistencia a clase, a permanecer en el mismo debidamente atendidos por el profesorado correspondiente, realizando actividades propias de las asignaturas.

6.– El ejercicio por los alumnos y alumnas del derecho reconocido en el apartado 3 no llevará aparejada para los profesores la obligación de repetir la explicación de la parte correspondiente del programa escolar afectada por la inasistencia a clase.

## CAPITULO III

## DEBERES DE LOS ALUMNOS

*Artículo 20.*– Los alumnos y alumnas tienen el deber de respetar el ejercicio de los derechos y libertades del resto de los miembros de la Comunidad Educativa. Este deber se concreta en las siguientes obligaciones:

a) Respetar la libertad de conciencia y las convicciones ideológicas, religiosas, morales y éticas, así como la dignidad, integridad e intimidad de todos los miembros de la Comunidad Educativa.

b) No discriminar a ningún miembro de la Comunidad Educativa por razón de nacimiento, raza, sexo, ideología, lengua, cultura, religión, u opinión o por cualquier otra circunstancia personal o social.

